

Erreferentzia: "Jendaurreko informazioa. Espedientea: 20-GE-Y-2021-00018"

Proiektua: BURUZAI Zentral Eolikoa.

Eskatzailea : Green Capital Development 65.S.L.U.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkarari

(Easo kalea 10, 20006 Donostia)

.....adinez heldua, NAN zenbakia..... eta jakinarazpenetarako.....helbide duena,herrian, KP, erakunde horren aurrean agertzen da, eta zuzenbidean bidezkoena den aldetik,

ADIERAZTEN DU:

2023eko abenduaren 15ean EHAAn argitaratu da Ekonomiaren garapen, jasangarritasun eta ingurumen sailaren iragarkia, zeinaren bidez jendaurrean jartzen da "BURUZAI 20 MW-ko zentral eolikoaren proiektuaren informazio-azterlana, 30 eguneko epea irekiz jendaurreko informaziorako eta alegazioetarako. Idazki honen bidez, honako hauek egiten ditut, garaiz eta behar bezala.

ALEGAZIOAK:

1.- Proiektuak Oleta-lazpi mendilerroaren industrializazioa eta ingurumen-inpaktu handia eragingo luke: Mendi gailurrean 200 metro altuerako aerosorgailuak jartzeko azpiegitura-lan gogorak egin behar dira. Buruzai proiektuaren arabera, bi aerosorgailu lazpi aldean eraiki nahi dituzte eta hauetako bat lazpiko gailurrean bertan. Horretarako 4340 metro karratuko plataforma laua egin beharko litzateke (eta 23.000 metro kubiko lur mugitu lazpin). Beste biak mendikatearen beste aldeko puntan egin nahi dira, Oleta inguruan. Bi eremu hauek lotzeko lazpi, Samiño eta Oleta arteko mendigain osoa zeharkatuko lukeen trailerrentzako 6 kilometroko pista bat eraiki beharko litzateke. Gainera pista hau Oletako gurutzearen gainetik igarotzea aurrikusten da. Ikusten denez, proiektu honek Oleta eta lazpiko gailurrak betirako galtzea eta mendikate osoaren suntsiketa dakar.

2.- Aldaketa klimatikoa eragin duen erregai fosilen CO2 emisioak murrizteko, derrigorrezkoa da Trantsizio Energetikorako plangintza integral bat garatzea 2030, 2040 eta 2050era begira .EAEn ez dugu horrelako plangintzarik.

EAEko politika publikoetan ez dago energia kontsumoa nabarmen murriztera bideratutako inongo arau edo lege zorrotzik. Erakundeek, herritarrekin batera, lehenengo kontsumo murrizketa ziurtatu behar dute; ondoren, autokontsumorako azpiegiturak garatu behar dituzte, eta azkenik, behar izatekotan, beste era bateko zentral berriztagarrien plan ordenatu eta adostua garatu. Kontuan izanda erregai fosilen kontsumoa dela energia kontsumoaren zatirik handiena, ezinbestean sustatu behar dira baldintza egokienak erregai fosilen erabilera bukatzeko eta energia berriztagarriena garatzeko.

3.- IRUARRIETA ondare arkeologikoa. Buruzai lur eremuetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dokumentatutako eta Ondasun Historiko deklaraturako 8 monumentu megalitiko multzoak daude: Iruarrieta Dolmenak (I-II), Auntzeta Gañako tumuluak, Arzabal, Elorrieta, Oleta eta Pagobakarra. Zentral eolikoaren barne konexioko bideak estazio megalitikoak zeharkatuko luke. Buruzai proiektu honek bete-betean harrapatzen ditu eta eragingo dituen kalteak konpon eta bueltarik gabekoak zango dira.

4.- Ingurumen-inpaktua: Eragin larria izango luke flora eta faunan. Zona horretan flora habitateari dagokionez interes komunitarioko 7 tipo identifikatu dira: pagoak, gaztainondoak, haltzak (ur errekei eusten diotenak), pinuak, astigarra basoak, belardiak eta ondorioz fauna leku aldatuko litzateke.

Gainera, milaka hegazti eta kiroptero hilko lirateke kalteen ondorioz. 12 kiroptero espezieetatik 3 babestutakoak dira eta horietako bat, **baso-sagusarra** desagertzeko arriskuan dago.

Euskadiko hegazki nekrofagoak babesteko planaren kontra, **saizuriaren**, zaurgarri katalogatua, area kritikotik baimendutakoa baino distantzia txikiagoan eraiki asmo dute, beraien umaldia arriskuan jarritz.

BURUZAI eta TREKUTZ, proiektuan dagoen beste zentralaren tartean, 3 km baino distantzia txikiagoa dago eta gune hau bereziki oso zaurgarria da **sai-arrearentzat** bere eguneroko janari lekua delako. **Miru gorria** ere desagertzeko arriskuan dago. Bertako hegaztiez aparte hegazti migratzaileen pasalekua da.

Bertako ugaztunen artean **azkonarra** daukagu "arraro" bezala kalifikatuta.

5.- Landa-eremua eta herrigune txikiak (Martirieta, Aratz Erreka, Aginaga) despopulaztea eta pobretzea eragingo luke, zentral eolikoetatik gertu dauden herrien bizi-kalitatearen eta ekonomiaren debaluazioa gertatzen baita. Zentralak sortuko lituzkeen **lanpostuek ez liokete ekarpen ekonomiko esanguratsurik egingo eskualdeari**.

6- Ur masa eta akuiferotan ere eragin larria izango luke obraren osotasunak, bai eraikuntzan, bai funtzionamenduan, kontuan hartzekoak baitira mendilerroko iturburuek jasan ditzaketen kalte atzeraezinak. Lurrazpia eta lurpeko urak kutsatzea ekarriko luke. Aerosorgailuen errotoreek behar duten olio kantitate handiak eta horien ihesek **lurrazpia eta lurpeko urak kutsatzea ekarriko lukete**.

7.- Paisaiaren inpaktua oso larria izango litzateke. Oletan eta Izazpin 200 metroko aerosorgailuek eragingo luketen inpaktu bisuala nabarmendu behar da Gipuzkoako eta Bizkaiko 57 herri desberdinetatik ikusi ahal izango direlarik.

8.- Mendiak, industrializazioaren ondorioz, bere zentzu natural, kultural eta paisajistiko osoa galtzen du: gaur egun, neurri handi batean, **erabilera publikoa duten herri-lur hauek, "de facto" pribatizatuko lirateke** energia oligopolioaren etekin ekonomikoen mesedetan eta eragin negatibo izango baitu natura bera gozatu eta bertan egiten diren zenbait kirol, martxa (Iñaki Beitia, Zazpi Kurutze, Ehun Miliak Ultratrail, UZ trail...) eta ekintzetan (Oleta eta Izazpiko egunak).

9.- Pertsonen osasuna kaltetzen dute. Aerosorgailuek infrauhinak eta zarata sortzen dituzte. Hauek eragina izanten dute pertsona eta animaliangan. Nekea, goragalea, zorabioa, burrunba belarrietan, insomnia, antsietate, memoria eta konzentrazio zailtasunak, estresa eta desoreka sortzen dituzte. Eguzkia errotan atzean dagoenean eta aspak biratzen daudenean, proiektatzen diren itzal kliskatzaileen eragina oso estresagarria izan daiteke, eta osasun-arazo jakin batzuekin ere lotzen da, hala nola epilepsiarekin. Gauean talka bisual handiagoa sortuko luke. Diskoteka-efektu honek animaliak ere zorutzen ditu, hiltzeraino iritsiz.

10.- Mendi eta herri-lurren diru publikoarekin finantzaturako pribatizazioa gertatuko litzateke (Capital Energy enpresa pribatuarentzat). Kontuan hartu beharke litzateke zentral fotovoltaiakoak eta eolikoak instalatzeko eskaera ugari egin direla, energia **"berritzagarrien" burbuila** eragin baitezake. Estatu espainiarrean, 2030erako helburua 60GW energia berriztagarri instalatzea zen, eta gaur egun 82GW daude instalatuta.

11.- Proiektuak talka egiten du erabat Gipuzkoako 2050 Energia Jasangarritasun Estrategiarekin: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021 urtean onartutako estrategia horrek **energia berriztagarriak tokiko autokontsumorako sorkuntza sakabanatuaren eta deszentralizatuaren bidez garatzea aurreikusten du**. **Gipuzkoan aerosorgailu handietan oinarritutako instalazio gehiago eraikitzea espresuki baztertzeko du** (gure lurraldeko baldintza orografikoetara egokitzen ez direlako) eta energia berriztagarrien hedapena **eskala lokaleko ekintzetara bideraturiko eredu** baten bidez bultzatzearen alde egiten du. Hortaz, Gipuzkoako **estrategia hori bete dadila eta Oleta-Izazpiko proiektuan aurreikusten diren instalazio eoliko handiak eta negozio ereduak baztertu**.

12.- Horrela, egiaztatu dugu proiektu honen bidez Oleta-Izazpi eta Gipuzkoako beste ibarrak energia eolikia ekoizteko zentral izatera kondentzen ari direla, gizartean, ekonomian, ingurumenean, paisaian eta osasunean eragin handia izango duena. .

Azaldutako guztiagatik, honako hau ESKATZEN DUT:

Agiri hau aztertu ondoren, onartu eta, horren arabera, aurkeztutak jo ditzala aurreko alegazioak, izapide egokiak egin ondoren, proiektuaren informazio-azterlana onar ez dezan, interes orokorrekoak jo ez dezan eta ingurumen inpaktuaren adierazpen negatiboa egin dezan.

_____ (e)n, 2024 ko Urtarrilaren _____ (e) (a) n

Sinadura _____